

Ondarroako (Bizkaia) liburutegia berriro ere itxi dute kalte berriak agertu direlako

BILBO, 18 (EUROPA PRESS)

Ondarroako (Bizkaia) Txomin Agirre Udal Liburutegia itxita egongo da gaurtik eta egun batzuetarako, konponketa lan berriak egin behar direlako agertu diren beste kalte batzuk konpontzeko.

Liburutegia ia bi hilabetez itxita egon zen herriko Ertzainetxearen kontrako atentatuak eragin zituen kalteak konpontzeko, baina hauek antza denez uste baino sakonagoak izan dira eta orain itoginak agertu dira, berriz ixtera behartuz.

Konponketak egin behar dituztenek aurreratu dutenez, lanak astebetean amaituta egongo dira eta horren ostean berriro ere zabalduko litzateke liburutegia.